

## KULTUR JARDUERAK ETA ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK PREZIO PUBLIKOEI BURUZKO UDAL-ORDENANTZA

### 1. artikulua.

9/2005 Foru Arauak, abenduaren 16koak, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko ogasunei buruzkoak, 44. artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat, Lezamako Udalak kultur jarduerak egin edo zerbitzuak eskaintzeagatik prezio publikoak zehaztu eta eskatzen ditu, ordenantza honetan dauden arauari jarraiki.

### 2. artikulua.

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaindu beharko dituzte Udalak eskaintzen dituen kultur jardueren eta zerbitzuen onuradunek.

### 3. artikulua.

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen zenbatekoa eranskinean dauden tarifetan finkatutakoa izango da.

### 4. artikulua.

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaindu beharko dira, interesdunak eskatu eta Udalak dagokion zerbitzua edo jarduera eskaintzen duen unetik.

### 5. artikulua.

Prezio publikoa egin behar duenari faktura edo ordainagiria aurkezten zaionean ordaindu beharko da.

Azken xedapena.

Aipatu ordenantza oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unean indarrean sartu eta aplikatzen hasiko da.

## **I. ERANSKINA**

### **Umeentzat astialdiko haur-programaren zerbitzua, "UDA" izenekoa.**

#### **HAUR PARTAIDE BAKOITZEKO PREZIOA**

##### **1.- LEZAMAN ERROLDATUTAKOAK:**

###### **1.1) TARIFA OROKORRA:**

ASTEA	47,00
HAMABOSTALDIA	94,00
HILABETE OSOA	188,00

**1.2) TARIFA MURRIZTUAK:**

**a) EKONOMIA ALDETIK EGOERA LARRIAN DAUDEN FAMILIAK (GIZARTE ZERBITZUAK BALORATUTAKOAK):**

ASTEA	24,00
HAMABOSTALDIA	48,00
HILABETE OSOA	96,00

**b) FAMILIA UGARIEN KIDEAK:**

ASTEA	37,00
HAMABOSTALDIA	74,00
HILABETE OSOA	148,00

**2.- LEZAMAN ERROLDATUAK EZ DAUDENAK:**

ASTEA	94,00
HAMABOSTALDIA	188,00
HILABETE OSOA	376,00